

ALJERIAKO LEHENDAKARIAK HALA ERABAKI DU GERRILLAK EKINTZA ARMATUAK ETETEA ETA DESEGITEA ERABAKI DUELAKO

# Salbaziorako Armada Islamikoko kide guztiei amnistia orokorra eman die Bouteflikak

■ AISeko kide guztiak bergizarteratuko dira, hilketak egin dituztenak eta bonbekin atentatuak egindakoak barne

■ Salbaziorako Fronte Islamikoaren, 1992. urtetik Aljeriak legez debekatuaren, adar armatua da gerrilla

■ Horrek su-etena aldarrikatu zuen 1997ko urrian, eta iazko ekainean iragarri GIaren aurkako borrokan parte hartuko zuela



Abdelaziz Bouteflika Aljeriako lehendakaria joan den irailean botoa ematen, Adiskidetzeko Zibilerako Legeari buruzko erreferendumean.

Erredakzioa / Donostia

AIS Salbaziorako Armada Islamikoko kide guztiei amnistia orokorra eman die Aljeriako lehendakari Abdelaziz Bouteflikak, Lehendakari atzo arratsaldean argitaratu zuen komunikatuan azaldu zuenez. Agiriaren arabera, Bouteflikak hala erabaki du AISek eten egin dituelako ekintza armatuak eta desegin egin delako.

Erabakiari esker, AISeko kideak libre dira auzi judizial guztietatik, baita hilketak egin edo bonbekin atentatuak egin dituzten kideak ere. Bergizartzeko aukera izango dute guztiek, salbuespenik gabe.

Amnistia berehala indargabetuko da, ordea, AISeko kideren batek edo batzuek berriro armak hartzen badituzte.

«Kontsentsuan eta adiskidetzeko oinarritutako bakea» nahi du Gobernuak, ez «herri-

tarren neutralizatzeko fisikoa». Gobernuaren iritziz, herritarrek hilez «ezingo da iraganeako akatsak konpondu eta etorkizunari eutsi». Aljeriako oposizioak, baina, behin eta berriz babestu du integrista armatuak hiltzeko politika, «erabateko segurtasuna» eskaintzen duelakoan.

Gobernuaren helburua da legeari indarrean eustea Aljeriako lurralde osoan. Horregatik, legeak ahalmentutako neurri guztiak erabiliko ditu «segurtasunaren egonkortasuna behin betikoz bermatzeko».

Ildo horretan, Lehendakari atzo kaleratutako agiriaren arabera, agintariak eskura dituzten bitarteko guztiak erabiliko dituzte armak utzi ez dituzten erakunde aurre egiteko.

## 1997tik tregoa

Madani Mezragek gidatzen du AIS, eta FIS Salbaziorako Fronte Islamikoaren —1992. urtetik legez debekatua— adar armatua da.

1997ko urriaren amaieratik abian du su-etena. Baina iazko ekainean hartu zuen erabaki garrantzitsuena AISek. Orduan erabaki zuen ekintza guztiak bertan behera uztea eta gerrillako kideak agintarien esku geratzeko. Horrekin

batera, GIA Talde Islamiko Armatuaren aurkako borrokan, Aljeriako Gobernuari laguntzea hobetsi zuen AISek. Harrezkero, herrialde osoko kanpaleku batzuetan bilduta daude gerrillako kideak.

Horiek etxeetara itzultzen hasi ziren joan den abenduaren 17an, Aljeriako prentsaren arabera. Bakarren batzuk daude oraindik klandestinitatean, eta horiek datozen orduetan hartuko dute etxerako bidea, iturri horiek zehaztu zuten.

Integrista armatuak errenditzeko epea amaitu baino bi egun lehenago eman zuen amnistia Bouteflikak. Adiskidetzeko Zibilerako Legean bildua dago armen uztea, eta horren arabera, bergizarteratu egingo dira armak uzten dituzten integristak. Ezinbestekoa da, ordea, odol deliturik ez edukitzea.

Baina AISeko kideekiko akordioa ez da gainontzeko integristekiko berbera. Aljeriako Armadako goi agintariak eta AISek akordio bat hitzartu zuten orain hilabete batzuk egindako negoziaketetan. Akordioa zertan datzan ez da inoiz jakitera eman ordea.

Armak uzteko azken eguna da bihar

■ INTEGRISTA ARMATUAK errenditzeko azken eguna da bihar. Hala egiten ez duenak ezingo du bergizarteratu, eta Aljeriako segurtasun indarrak gogor oldartuko dira horien aurka.

Armak uzten dituzten integristak bergizarteratzea biltzen du Aljeriako Adiskidetzeko Zibilerako Legeak. Hori iazko uztailearen 13an aldarrikatu zuen Abdelaziz Bouteflika lehendakariak eta sei hilabeteko epea eman zien integristei eta horien jarraitzaileei.

Ez dira amnistiaturik, baina, odol delituak egin dituztenak, bortxaketak egin dituztenak eta biktimak eraginez lehergaiekin atentatuak egin dituztenak.

Dena den, batzorde espezializatuek dute azken hitza. Errenditu direnen kasuak aztertuko dituzte banan bana, eta ondoren erabaki.

Integrista armatu guztiak utzi dituzte armak gaur arte, Gobernuak iturriaren arabera. 1.200 kidek utzi zituzten beren buruak segurtasun indarren esku, iazko azaroaren amaiera bitartean. Gaur arte errenditutakoak ez dira 1.500 baino gehiago izango beraz.

3.000 inguru gehiago daude mendietan ihes eginda eta herrietan ezkutatuta, Gobernuak iturriek uste dutenez.

Azpimarratzekoa da errenditutako inork ez duela bere burua aurkeztu talde armatuetako buruzagi gisa. Horrek pentsarazten dio Gobernuari arma guztiak eskuhartean dituztela GIA Talde Armatu Islamikoko kideek eta GSPCKoek.

HAMID / EPA